

HUHEZIK prest du nazioarteko ikastaroen bosgarren aldia 2011-2012 ikasturterako

2011/02/25

Helburuak

Hemen dauden bitartean, Erasmus ikasleek bertako ikasleekin egingo dituzte ikasgai guztiak, ingelesez. Dinamika horren bidez, unibertsitateak nahi du ingelesa txertatu ikasketetan, baina egoera errealetan oinarrituta. Horrezaz gain, ikasleek praktikak egingo dituzte Debagoieneko ikastetxeetan eta EITBren egoitza nagusian, Bilbon.

Eskaintza akademikoa

Bosgarren aldi honetarako ere HUHEZIK bi ikastaro antolatu ditu.

- **Media and Communication** da ikastaro baten izena, Hedabideak eta Komunikazioa, eta prestaturik dago komunikazio eta kazetaritzako ikasleentzat. Bertan aztertuko dira nazioarteko komunikazioa, dokumentalgintza eta telebistako produkzioa. Halaber, ikasleek praktikaldi bat egingo dute EITB komunikazio taldeko web zerbitzuan, non landuko duten kazetaritza digitala.
- **Education and Multilingualism** da bigarrenaren izena, Hezkuntza eta Eleaniztasuna, eta bertan aztertuko da Bigarren eta Hirugarren Hizkuntzaren Jabetzea Umeengan eta Teknologia Berrien Erabilera Eleaniztasunaren Garapenean. Hemen ere, ikasleek praktikaldi zabala egingo dute ingelesez Haur eta Lehen Hezkuntzako eskoletan, Debagoienean.

Ikastaro bereziak

Ikastaro hauek berritasun handia dakarte, orain artean Euskal Herriko unibertsitate gehienek erakartzen baitzituzten atzerriko ikasleak gaztelaniazko eta frantsesezko ikastaroak antolatuta. Bi ikastaro hauek, berriz, erabat ingelesez emango dituzte HUHEZIKo irakasleek.

Ikastarook antolatu dira Ipar Europako herrialdeek (Norvegiak, Danimarkak, Suedia, Finlandiak eta Holandak) ezarritako ereduari jarraituz, hedapen txikiko hizkuntzak izanik, aukeratu baitute ingelesa nazioarteko ikasleak erakartzeko

